



Kirol-etorkizuna
Bizitza osasungarria

Kirol-eredu bat Leioarako

1. Aurkibidea



2. Aurkezpena: helburuak eta metodologia 3

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa 10

4. Zein da Leioaren kirol-eredua etorkizunari begira? 28

5. Gogoetak



2.Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

LEIOAk biztanle-kopuruaren hazkunde handia izan du azken urteotan, eta instalazioak nahiz azpiegiturak dagoeneko nabaritzen hasi dira erantzun behar duten egoera hori.

Kirol-arloa eta kirol-instalazioak ez daude egoera horretatik kanpo, beraz, premiazkoa da gaurko eredia birplanteatzea eta Leioako kirolaz hausnartzea etorkizunari begira.

Gauzak horrela, Udalak, esparru honetan ere, udalerriko bizilagunen iritzia hartu nahi du aintzat, eta asmo hori betetzeko partaidetza-prozesu bat abiarazi du. Horren bitartez zuzenean ezagutu nahi ditu Leioan bizi diren eta nolabait kirolarekin harremanetan dauden pertsona guztien beharrak, baita egoera jakin batean udalerriko kirol-instalazioen erabiltzaile izan litezkeen pertsonenak ere.

2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

Ondoren, prozesuaren metodologia azalduko da baita partaidetzaren emaitzak eta herritarren eskura jarri diren kanalen bitartez jasotako ekarpenak ere.

Prozesua ekainetik irailera bitartean gauzatu da, honako pausu hauei jarraituz:



2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

Hauexek izan dira **prozesuaren** partaide izateko aukera eduki duten **eragileak**:

1. Leioan errolatutako 16 urtetik gorako pertsona guztiak.
2. Leioan egoitza soziala duten erakunde guztiak.
3. Udaleko kirol-instalazioetako langileak.

Leioako bizilagunen **partaidetza** gauzatu ahal izan da aurrez aurreko kanalei nahiz kanal birtualei esker. Biak erabiliz konbinazio eraginkorra bermatu da teknologia-arloan gaitasuna duten nahiz ez duten biztanle-geruzen ekarpenak jasotzea errazte aldera.

Prozesuaren esparruan erabili den **galdera-sortak** irakurketa errazterako printzipioak hartu ditu barne eta modu horretan bide eman du edukiak egoki ulertzeko.

Prozesua **sozializatze**ko postontzietan banatu dira triptiko bat, prozesuari lotutako informazioa zeukana, eta galdera-sorta erantsi bat, prozesuan parte hartzeko aukera eskaintzen zuena.

Horrez gain, Leioako udal-aldizkarian ere azaldu da prozesuari buruzko informazioa baita bertan parte hartzeko atondu diren kanalei buruzkoa ere.

2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

Hona hemen atondu ziren **kanalak**, aurrez aurrekoak nahiz birtualak, herritar guztien eta lehenago aipatutako eragileen ekarpenak, gomendioak, kezkak eta iradokizunak helarazteko:

1. Udal Erregistroa.
2. Atondutako 14 udal-postontzi:

Udal-eraikinak:

Pinuetako Nagusien Etxea, Txorierriko Nagusien Etxea, SAC Gaztelubide, Udaletxea (Udaltzaingorako sarrera), Sakoneta kiroldegia, San Bartolomeko Kulturgunea .

Kalean, ondoko lekuen inguruetan:

Lamiakoko metro-geltokia, Udondoko Bulebarra (Ikaztegiko aparkalekua). Ikea mendiko igogailua, Mendibile pasagunerako sarbidea (aparkaleku urdina).

Artatzagana (Bordeoena parkea), Artatza kalea (20. zenbakian).

Kultur Leioa (Jose Ramon Aketxe plaza),Estartetxe kalea (umeentzako jolasgunearen alboan).

Ekainaren 20an eta 21ean udal-kiroldegirako sarbidean kokatutako **karpetan** .

Karpetan *photocall* bat ere atondu zen, bertan unearen eta prozesuaren oroigarri bat egin ahal izateko. Proposamena/ak e-mail bitartez bidaliz leioazabalik@leioa.net posta-helbidera.



2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

Udal-webgunean eskuragarri zegoen inprimaki digitala betez.

Udal-kirolegiko sarreran antolatu zen **informazio-totemean** parte hartuz.

Aurrez aurreko tailerrak eta topaketak:

5 topaketa gauzatu dira hainbat eragilerekin:

- ✓ Tailerra OndizTorre aretoan, herritar orori zabalik.
- ✓ 3 focus group zenbait kirol-erakunderekin.
- ✓ 2 bilera udal-instalazioetako langileekin.

2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

2. Aurkezpena: Helburuak eta metodologia

Guztira hartu dute parte...:

- ✓ **Guztira 324 pertsonak** hartu dute parte herritarrei zabaldutako prozesuaren bidez.
- ✓ **27 pertsonak** aurrez aurre hartu dute parte Focus groups izenekoetan eta tailerretan.
- ✓ **Leioako kirol-zentroetako 7 langilek** hartu dute parte.



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kapitulu honek aztertzen du Leioan kirolak gaur egun duen errealitatearen inguruan jasotako informazioa.

Azterketa hiru alderditan oinarrituz egin da: kirol-praktika, kirolak udalerrian duen presentzia eta, hirugarrenez, herritarren pertzepzioa udaleko kirol-instalazioei buruz.



Kirol-praktika



Kirolaren
presentzia



Udal-instalazioak

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-praktika

Oro har, Leioan kirol-praktikaren maila oso handia delako ustea dago.

Udalerrian **kirol-zaletasun nabarmena** sumatzen da, eta, gainera, askotariko diziplinak jorratzen dira.

Kirola oso modu **partizipatiboan** egiten da, eta ondorioz, udalerrian komunitatea eta **bertako izateko sentimendua** sortzen dira.

Horrez gain, **belaunaldiak batzen ditu eta familia-sentimendua hedatzen du; izan ere, maiz familiartean bertaratzen dira herritarrek kirol-instalazioetara.**

“Batzuetan uste dut mundu guztiak egiten duela kirola, gauza bat ez bada beste bat da”

“Edozertarako deia egiten denean, ibilketa bat edo, beti dago interesaturik”

“Guztiak ezagutzen dituzu, azkenean”

“Nik hiru belaunaldiri eman diet eskola, aititari, amari, semeari...”

“Nik eskola eman diet amari, alabari eta aititari”



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-praktika

Bestalde, Leioan azken urteotan izandako hazkundeak udalerri gazte eta aktiboa bilakatu du, kirola egin ohi duten familia gazteak **azaltzen dituen profila duena**.

Gainera, badaude zenbait klub eta praktika gehiengodunak diren kiroletan aritzeko, **futboleak, saskibaloian...** , besteak beste, baina horietaz gain badaude hain ezagunak eta aintzatetsiak ez diren diziplina ugari, hala nola **eskrima, gimnasia erritmikoa, waterpoloa, kirol-arrantza edo xake-jokoa**.

“Leioan 27 kirol-elkarte daude boxeoaz gain”

“Garrantzitsua da oso kirol gutxiengodunak eta maila handikoak mantentzea eta horien arteko bizikidetza sustatzea Leioan”

“Nik hiru belaunaldire eman diet eskola, aititari, amari, semeari...”



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa



Kirol-praktika

Kirolean egiten duten jardunaren arabera identifikatu eta bereizitako gizataldeei dagokienez, antza, bereizketa argia dago adinean oinarrituta.

Eskola-adineko neska-mutilek nahiz pertsona nagusiek kirola egin ohi dute eskuarki.

Alabaina, badaude zenbait kolektibo bereizita arlo honetan:

Niños y niñas

Neska-mutilak Lotuago daude eskola-kirolarekin eta lehenengo lehiaketekin.

“Kirola egiten ikastetxeetan eta Udan hasten zara”

Jóvenes

Gazteak Kirol federatuaren arloan jardun nabarmena antzematen da, baina, halaber, badago gizatalde jakin bat zeina ikasten ari den bitartean eta amatasun/aitatasunaren lehengo urteetan kirola egiteari aldi batez uzten dion.

“Kirol-jarduera gehiago 13 eta 16 urte bitarteko nerabeentzat”

Edad adulta

Helduak Berriz hasten dira, kirolek garai batean aldenduta egon ostean.

“Zenbait itzultzen dira denbora-tarte baten ostean eta poztu egiten zara.”

Tercera edad

Adinekoak Intentsitate txikiagoko jardueradun kirolarekin gehiago lotzen dira, mantentze-gimnasia, eta abar.

“Badaude pertsona nagusi asko egunero mantentze-gimnasia egitera etortzen direnak.”

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-praktika

Bestalde, bi gizatalde bereizten dira **egiten duten kirolaren intentsitatea oinarri hartuta**.

KIROL FEDERATUA EDOTA LEHIAKETA-KIROLA: Leioaren kasuan badaude kirol-diziplina ugari lehiaketa ofizialean ordezkartuta dutenak. Horietan Leioako bizilagun asko daude sartuta, bai kirolari gisa bai jarraitzaile gisa. Senitartekoak, zaleak...eta abar.

“Jende asko daukagu maila altuko lehiaketan.”

“Badaude kirol asko errenferentziakoak direnak.”

PARTE HARTZEKO KIROLA: Bestalde, kirola amateur moduan egiten duten pertsonak aipatu behar dira. Horiek ez dute lehiari aritzeko asmorik baina kirolean sasoian egoteko eta osasuna hobetzeko modu bat ikusten dute.

“Badago jende asko egunero pilates, mantentze-gimnasia egitera... etortzen dena”



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirolaren presentzia

Leioa erreferente da kirol-diziplina anitzen praktikan eta **erreferentziako zenbait talde ditu autonomia- eta estatu-mailako lehiaketetan.**

Horrek erakartzeko indarra dauka bai udalerri barruan bai mugakide diren udalerrietan, izan ere, hurbileko udalerrietatik pertsona asko etortzen dira kirol federatuan eta maila altuko lehiaketa-kirolan aritzeko.

Beste zenbait udalerritako pertsonak erakartzen dituztenetako batzuk gimnasia erritmikoa, waterpolo eta emakumezkoen futbola dira.

“Talde bat EAEko maila goreneko lehiaketan. Potentzia bat eta aurrekontu txikiduna.” “Neskato bat beste gimnasia-talde batean nabarmentzen denean, hona etortzen da, leku askotako neskatoak daude.”



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirolaren presentzia

Kirol-klub eta -elkarte anitzek senitartekoen eta kirolari ohien sostenguari esker irauten dute bizirik.


Boluntario askok eusten diote kirol federatuaren gatz eta piperrari lanaren poderioz. Ildo horretan, aitortu egiten da erakundeen, batez ere tokikoen, euskarriaren garrantzia. (hala ere, zalantza barik, zenbat eta euskarri gehiago lortu orduan eta hobeto)

“Guk bizirik irauten dugu udalaren laguntzari eta guztiok boluntario izateari esker”

*“Boluntarismoari esker funtzionatzen dute espezialitate gutxiengodunek”
“Gutako asko kirolarien aita-amak gara, eta kirolik ere ez dugu egiten”*

Bestalde, nabarmendu egiten da **udalerriak berak eta horren inguruneak kirola egitera bultzatzen dutela**. Izan ere, dituen espazio irekiak, berdeguneak, bidegorriak eta hondartza hurbil egotea lagungarri dira.

*"Bidegorriak eta espazio irekiak
daude kirola egiteko"*



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Ondoren, gogoeta egingo dugu kirol-instalazioen egoerari buruz. Kontuan hartzekoa da Sakoneta kiroldegia erreferentea dela udalerrian kirol-esparruan; hori dela-eta, balorazio eta iruzkin gehienak kiroldegi horri dagozkio.

Honako alderdi hauen ingurukoak dira ekarpenak:

Egoera

Eskaintza

Kokapena

Tamaina/ Edukiera



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Egoera



Esparru honetan iritzi kontrajarriak antzeman dira.

Oro har, kirol-instalazioak egoera onenean ez daudelako ustea dago.

Onartu egiten da Sakoneta egin berri zenean, instalazioak eta, batez ere, eraikinaren diseinua erreferentziakoak izan zirela ingurunean.

Hala ere, denboraren poderioz instalazioen egoerak **txarrera** egin du eta orain dituen hutsune eta eskasien ondorioz kirol-praktika ez da hain atsegingarria.

Kiroldegia egin zutenean punta-puntako eraikina zen, Txillidarena!

Horren harira aipatzen da **igerileku klimatizatuen egoera hobetu daitekeela. Zenbait ur-ihes daude eta konponduz joaten dira baina, batez ere, nabarmentzen da udan jasaten diren temperatura altuei aurre egiteko beharra.**

“Iaz berriro dirutza inbertitu zen igerilekuetan ur-ihes bat zela-eta, baina amaierarik gabeko putzua da.”

“Udan ezin da igerilekuetan egon han egiten duen beroagatik.”

Kirol anitzeko aretoei dagokienez, espazioen berrerabilera gorabehera, zenbait jarduera ez direla bateragarri adierazi da. Espazioen akustika oso garrantzitsua da eta aspaldian Squash-a egiteko erabiltzen ziren aretoek ez omen dira egokiak beste diziplina batzuetan aritzeko.

Halaber, **yoga edo Pilates bezalako jarduerak ezin dira egin ondoko geletan zumba- edo spinning-saioak gauzatzen diren bitartean.**

“Squash-kantxetan eskola ematea ezinezkoa da, ezin da elkar ulertu.”

“Guk gimnasia egiten dugu okertuta dagoen gela batean.”

“Yoga-eskoletan zumba beste aldean egonez gero, ezinezkoa da”

3. Leioako kirol-arloaren diagnostika

Kirol-instalazioak

Egoera



Era berean, kritikak jaso dira espazioen klimatizazioari dagokion alorrean, adibidez, aipatu izan dira barruko haize-lasterrak edo gimnasia-geletako klimatizazio-falta.

“Nik ditudan zenbait argazkitan adinekoak bufanda jantzita agertzen dira”

“Boulderretik umeak oinutsik igotzen ikustea egiten duen hotza kontuan hartuta... lur jota gelditzen naiz”

“Kantxetako pasabidean izoztu egiten zara”

Sakonetaz aparte, gainerako instalazioetan ere ba omen daude **hobetu beharreko esparruak**: **Kandelazubietaren** kasuan, arestian hobekuntzak egin badira ere, badirudi nolabaiteko **berrikuspena** behar duela bertan biltzen diren kirol-diziplinak gutxieneko kalitatea bermatuta jorratu ahal izateko xedez.

Bestalde, zenbait kirol-eremu edo -instalazio gutxiegi erabiltzen direla sumatzen da: dirudienez, **probalekua eta aire zabaleko kirol-kantxak** gutxiegi erabili eta aprobetxatzen dira.

Kasu horretan, **jarduera osagarriak egiteko aukera** adierazi da, batez ere probalekuan, instalazioak

“Ez dut ulertzen zergatik ezin den probalekua erabili beste zerbaitetarako, animalien probak dagoeneko ez dira egiten eta.”

“Dantza-, auresku-, harrijasotzaile-saioak... eta gauza gutxi gehiago egiten da, baina oholtza desmuntagarri bat jar daiteke ”

“Kandelan sekulako beltzuneak daude”

“Kirolzaleak guettoa.”

ahal den neurrian erabil daitezten.

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Egoera



Ikuspuntu positibo batetik zenbait instalazioren **kalitatea** aitortzen da: Leioako Boulderra adibidez, Bizkaian erreferente gisa nabarmendu zena.

“Boulder bat daukagu, ez dakit esan ala ez, jende gehiago etor ez dadin... baina inguruetan onenetakoa da.”

“Jende asko etortzen da Leioara praktikatzerara.”

Futbol-taldeek ere pribilijiatutzat dute euren burua gaur egun dituzten **instalazioengatik eta horien egoera onagatik**. Hori bai, instalazioen mantentze-lan egokiak eskatzen dituzte egoera onean jarrai dezaten.

“Gu ezin gara kexatu, instalazio onak ditugu, mantendu behar dira baina oso ondo daude.”

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Egoera



Pabiloi nagusiaren ezaugarriek oso balorazio onak jaso dituzte: oso egokia hainbat diziplinatan aritzeko, bereziki, gimnasia erritmikoan.

“Onena gela handia da, handiena da. Ispiluak ditu, balleterako barra, ez dauka zutaberik, horma-barrak, ispilua...gela hori ezin hobea da.”

“Onena kantxaren altuera da, ez dago hori bezalako asko”

3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Tamaina/Edukiera

Leioa udalerriko gaur egungo kirol-instalazioek edukieraren aldetik gabeziak dituzte, antza, kirola egin nahiko luketen pertsonen kopurua beren baitan hartzeko.

Erabiltzaileen kopurua udal-instalazioen edukiera baino handiagoa da.

Halaber, zenbait diziplina egiteko itxaron-zerrenda hain da handia ezen pertsona batzuek beste udalerri batzuetara joatea aukeratu baitute.

“Badaude gainezka dauden kirolak, baina zenbait kirol ez dira eskaintzen leku-faltagatik”

“Instalazioen eta harmailen edukiera txikia da”

“Gimnasia sartzeko 150 pertsona ere zain egotera heldu gara”

“Hirugarren adinean 200 pertsonak eman dute izena eta pilo bat dago zain”

“Guk ezin ditugu ume gehiago hartu zeren eta ez baitugu ordu gehiagorik entrenatzeko”

“Pista beste 3 diziplinarekin partekatzen dugu, ikastera behartu gaitu, baina ezin zara hazi”

*“Hainbat hiletako itxaron-zerrendak daude, norbaitek baja noiz hartuko zain”
“Badaude umeak igeriketa-ikastaroetara beste toki batzuetara eramaten dituztenak, hemen lekurik ez dagoelako”*



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Tamaina/Edukiera

Edukieraren eta erabiltzaileak hartzeko ahalmenaren aldetik kritika gehien jasotzen dituen esparruetako bat igerilekua da.

Publikoa, ikastaroak eta zenbait diziplinatako entrenamenduak bat egiteak mukururaino betetzen dituzte ur-instalazioak eta igeriketa librea zailtzen dute.

“Igerilekuak hotel batekoak baino txikiagoak dira ”

“Zenbait tartetan kale bakarra dago guztientzat”

“Sinestezina da waterpolokoak igerilekuak itxi arte zain egon behar izatea entrenatzeko lekurik ez dagoelako”

“Duela 37 urte egindako kiroldegi batek ezin die erantzuna eman gaurko beharrei”

“4ko 5 familia 20 pertsonako edukiera izanda, kito!”





3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Eskaintza

Dirunienez, gaur egunean eskaintzen diren kirol-zerbitzuak urriak dira dagoen eskaerarako.

Batez ere matrikulapean egin behar diren jardueren kasuan **itxaron-zerrendak luzeak dira** eta kirolean aritzeko gogoak kendu egiten dute.

“Jendeak beste leku batzuetara joaten da umeen”

“Leioako jendeak kirola bere herrian egiteko aukera eduki beharko luke”

Ez hori bakarrik, **aipaturiko jardueren okupazioaren kudeaketa ere** kritikatzeko da. Izan ere, zenbait diziplinaren matrikula beteta egon arren, erabiltzaile asko arrunki ez dira bertaratzen eta, taldeen partaideen esanetan, saioak egiten dira gelak har litzakeen pertsonen erdiak izanda.

“Ez dago lekunik, baina gero spinning-gelatik pasatzen zara eta lau daude”

“Badago plaza berritzen duen jendea eta gero 6 hilabetean ez da agertzen”



3. Leioako kirol-arloaren diagnostikoa

Kirol-instalazioak

Eskaintza

Aurrekoaz gain, badirudi udal-instalazioetan proposatzen den kirol-eskaintza **atzeratu samar geratu dela oraingo kirol-joerak kontuan izanda.**

“Eskainitakoa aldatu beharko litzatekeelakoan nago”

“Orain CrossFit-a dago modan eta gu ciclo indoor-a egiten gelditu gara”

“Gauza asko eskatzen dira. Jende askok deitzen du jarduera desberdinak eskatzen, igeriketa helduentzat, atletismoa...”

“Lehen kirola egitea izerditzea zen, orain Leioako biztanleen erdiek yoga egin nahi dute”

“Eskaintzan gutxi gaurkotua dago. Apurtxu bat berritzeak asko erakartzen du jendea. TRX a adibidez.”





4. Zein da Leioaren kirol-eredua etorkizunari begira?

4. Zein da Leioaren etorkizuneko kirol-eredua?

Kapitulu honek aztergai dauka Leioan kirolak izango duen etorkizunari buruz jasotako informazioa.

Nolakoa izango da kirola? Nola imajinatzen du Leioak zenbait urte barruko kirola bizitzeko modua? Nola kudeatuko da?

Halaber, irudikatutako kirol-eredu hori gauzatzeko gai izango diren kirol-instalazio berrien diseinuak eduki beharko lituzkeen ezaugarriak ere aztertzen dira hemen.



Kirola bizitzea



Kirolaren
kudeak
eta



Udal-
instalazioak



Kirol-eskaintza

4. Zein da Leioaren etorkizuneko kirol-eredua?

Kirola bizitzea

Gogoeta egin da Leioan datozen urteotan kirola bizitzeko egon beharko litzatekeen modu desiragarriari buruz.

Ildo horretan, gauza interesgarri litzateke **kirol-instalazioen hormak gainditzea lortzea**, hain ezagunak ez diren kirol-diziplinak Leioako bizilagunei helarazteko eta, aldi berean, kirolaren praktika kalera ateratzeko.

Askotarikoak dira mahaigaineratutako estrategiak:

1. Alde batetik, **kirol-diziplinen hedapena** sostengatzea:

UDArek bitartez laguntzea hainbat diziplina hedatzen udan udal-udalekuetara joaten diren umeekin.

"Hainbat kirolekin jartzea harremanetan tailerretan, "Uda" udalekuetan, eskolaz kanpoko ekintzetan...kirol horiek ezagutarazteko eta ondoren irailean ikastaroetan izena emateko"

2. **Kalean hainbat diziplinatan jardutea** erakusketa gisa doako eskolak eskainiz.

"Bulebarrean spinning-kasuan egiten den ekimena bezalako ekintza gehiago. Batuka, body combat, eta abarren masterclass modukoak antolatu litezke."

"Kirol-gauzak antolatuz, spinning-a, mendia, saskibaloia..."

"Jendeak jardueretan parte hartzeko egun bat antolatzea: sokatira, partiduak..."

"Kirol-eskolak lorategietan egin daitezela. Kirola kalera atera dadila."



4. Zein da Leioaren etorkizuneko kirol-eredua?

Kirola bizitzea

Eta bestetik, **kirolaren kultura** sustatzea:

3. Kirola aire zabalean egitea bultzatuz.

“Bestalde, badaude diziplina batzuk, adin guztietarako oso aproposak, Leioako espazio fisiko desberdinak, parkeak, berdeguneak... baliatuz eta eguraldia lagun, jakina, egin litezkeenak: taichi-a, yoga, meditazioa... Onuragarriak bai fisikoki bai mentalki.”

“Sakonetan profesional batekin aire zabalean egiteko kirol-ekintzak. Adibidez: korrika egitea, mendiko bizikleta, eta abar.”

Udalak sostengu ematea udalerriko **klubek beraiek kalean ekintzak egin ditzaten** euren kirol-diziplinak sozializatzeko helburuz.

“Guk gau-ekitaldiak egin nahi genituen kalean kirola ezagutarazteko, baina ez genuen topatu horretarako aukera emango ligukeen biderik”

“Klubek nolabaiteko autonomia eduki dezateia euren artean leniaketak antolatzeke”

Era berean, zenbait diziplinak interesgarri ikusten dute Udalak **laguntzea** mota askotako **txapelketak antolatzen**, eta horiei esker Leioa kirol-mapan kokatu dadin hainbat diziplinaren kasuan.

“Jarduerak eta txapelketak herritarren parte-hartzea bultzatzeko”

“Fomento de campeonatos por parte del ayuntamiento”



4. Zein da Leioaren etorkizuneko kirol-eredua?

Kirola bizitzea

Halaber, Leioa udalerriaren ezaugarriak eta bertan dauden eremu asko kirola aire zabalean egiteko aprobetxatzeko beharra azaldu da: Leioa, zenbait elementu jarritz, kirola bizitzeko nahiz kirolaren praktika gauzatzeko toki egokia dela herritarrei jakinaraztea.

“Amaitzeko, edonork ikusi dezake, Leioatik buelta bat ematea baino ez dago, jende askok oinez paseoak ematea duela gustuko, polita liteke adibidez, herri mailan ibilbideak antolatzea, ibilbide gidatuak izan litezke, elkartzeko guneak jarri, jendea elkarrekin ibilbideak egiteko eta bide batez, denon herria hobeto ezagutzeko”

“Joko-pistak”

“Pistak aire zabalean”

“Kalisteina-ariketak egiteko barrak.”

“Belarrean abdominalak egiteko bankuen falta sumatzen dut, oholtzaren falta lurrean etzateko eta luzamenduak egiteko... egungo makinak gutxi dira eta pasealekuaren erdian daude.”

“Running-a egitearekin bateragarriagoak diren zoruko bideak erakiz eta horrela korrikalarien belaunak ez dira munduko”

“Paseatzeko bideak”

“Barrak edo kirola egitera bultzatzeko moduko bestelako gauzak dituzten parkeak”



4. Zein da Leioaren etorkizuneko kirol-eredua?

Kirola bizitzea

Azkenik, **kirola bizimodu gisa eta balio-modu gisa ikusarazi behar dela** adierazi da:

Kontzientziazio-prozesuak eta kanpainak gauzatzea, praktikaz haratago, kirola egitea **osasuna hobetzearekin eta osasuntsu jarraitzearekin lotuko dutenak.**

“Kirola osasuna da”

Eta horrez gain, kirolaren balioak ezagutaraztea, besteak beste ondoekin lotutakoak: **hezkuntza, elkartasuna, taldekako lana...eta abar.**

“Kirolaren aldeko apustua ezin da finantzarioa izan, zeren eta hezkuntza-funtzioa eta osasunaren aldeko funtzioa galtzen baitira”

“Kirola elkartasunean hazteko modu bat izan dadila”

“Ariketa fisikoa osasuna da, hezigarria da...”



4. Zein da Leioaren etorkizuneko kirol-eredua?

Kirola bizitzea

Testuinguru honetan, kirola bultzatzeko modu gisa, proposamen bikoitza mahaigaineratu da: alde batetik, Leioako kirolari nabarmenen lorpenei **publizitate eta aintzatespen handiagoak** emateko beharra, eta bestetik, kirolari horiei beharrezko sostengua ematea hobetzen jarrai dezaten.

Bide hori **kirol-praktika sustatzeko modu bat izan daitekeelako** ustea dago; izan ere, Leioan kirolari bultzada handiagoa ematea lortuko duten udalerriko erreferente argiak azaltzen ditu.

Horrez gain, eta ahal den neurrian, saiatu behar da kirolari horiek **beste udalerri batzuetara alde egin ez dezaten**, espezializatu diren diziplina Leioan baino puntakoagoa deneko udalerrietara, hain zuzen.



“Leioako kirolariek lortzen dituzten sariak jakitera ematea”

“Kirolari onek Leioatik alde egitea ekiditea”



4. Zein da Leioaren kirol-eredua etorkizunari begira?

Kirola bizitzea

Azkenik, kirola udalerria bera ezagutarazi eta sustatzeko modutzat hartzen da.

Apustua egin nahi da **erreferentziako kirol-lehiaketak egitearen alde**, horien bitartez Leioa kirol-mapan kokatu dadin.

Era berean, udalerria, merkataritza eta turismoa bera dinamizatzeko aukera gisa ulertzen da kirola, erreferentziako ekintza batek eskualde-, autonomia- edo estatu-mailan lor dezakeen erakarpen-indarrari esker.

“Kiroldegia jende asko erakartzen du herrira, herrirako da....”

“Leioan lehiaketak egitearen ondorioz jendea etortzen da eta erosi egiten du, merkataritza ere bultzatzen du”



4. ¿Cuá?

Kirolaren kudeaketa

Kirola kudeatzeko Leioak duen ereduari dagokionez, hainbat alderdi mahaigaineratu dira.

Erakunde autonomoa

Erakunde autonomo bat eratzeko komenigarritasuna adierazi da, kirol-azpiegiturak kudeatu eta udalerrian kirola dinamizatzeko helburuz.

Partaideen esanetan, zeregin horretara **berariaz emandako erakunde bat** balego, Leioaren kirol-eredua koherenteagoa eta transbertsalagoa litzateke eta udalerri osorako Kirol Plan jakin bat egongo litzateke.

Halaber, "Leioa Kirolak" ekimenaren inguruan bertakoa izateko sentimendua eta marka-sentimendua sortuko litzateke eta kirolari bultzada handiagoa emango litzaioke.

"Kirol Institutu bat egon beharko litzateke koordinazio handiagoa egoteko."

"Instalaziorik behar ez dugunok ...erakunde baten laguntza behar da"

"Getxon egiten duten moduan, dena da Getxo Kirolak, euritako baten antzera"

"Proiektu global praktiko bat edukitzea"



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Gestión del deporte

Langileen teknifikazioa

Leioan kirola kudeatzen duten pertsonen dagokienez, antza, beharrezkoa da **teknifikazio edo profesionalizazio handiagoa** lortzearen aldeko apustua egitea.

Honakoetaz mintzatzen da besteak beste: **berariazko kirol-prestakuntzadun monitoreak**, berariazko langileak **behar bereziak dituzten** erabiltzaileentzat, **sendagile** espezializatuak kirolari lotutako gaitzetarako edo pertsona bakoitzaren ezaugarrien eta gaitzen arabera zein kirol edo ariketa egitea gomendatu ahal izateko.

*“Kirol-pedagogian
espezializatutako teknikoak”*

*“Ume bereziekin aritzeko prestatutako
irakasle bat, institutuan gela egonkorretan
dagoen bezala”*

“Monitore ondo prestatuak”

“Profesionalak jardueretan”

*“Kiroldegian sendagile bat edo gehiago egotea. Baja hartuta
egon da eta ez du ordezkorik izan.”*



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Gestión del deporte

Elkarren arteko
kudeaketa

Kirol-klubek zeregin nabarmenagoa eta partaidetza handiagoa eskatzen dituzte espazioen aldaketetan nahiz espazioen kudeaketan eta espazioak batera erabiltzean.

Proposamena egin da klubek beraiek kudeatu ditzaten espazioak edo gutxienez espazioen banaketan parte har dezaten entrenamenduetarako, lehiaketetarako eta abarretarako. Izan ere, klubek eta kirolariek beraiek dakite ondoen zein premia dauden; hortaz, garrantzizko alderdia dira **espazioen definizioan, materialen aukeraketan eta alderdi teknikoagoetan.**

“Espazioak partekatzea eta klubek kudeatzea ordutegiak”

“Buena gestión de las instalaciones ...compartir espacios para diferentes disciplinas”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Gestión del deporte

Abonamendu-eredua

Aipatzen den betetasuna kontuan hartuta, **bestelako eredu bat proposatzen da gimnasiako jardueretarako espazioak betetzeko.**

Zenbaitzuek adierazi dute **tarifa finkoa ordaintzeko** aukera kirol-instalazioez eta bertan eskainitako jardueraz gozatzeko.

Horrela, norbait, abonamendu bakarra edukita, instalazioetara bertaratzen denean, **une horretan egitekoak diren jardueretara sar daiteke, edukieraren aldetik posible izanez gero.**

“Erabiltzeko ordutegi egokiak”

“Halaber, ahalik eta lasterren hartzeko neurri bat ikusten dut gidatutako jardueretan ordutegi-askatasuna izatea, zeren eta modu diskriminatzaile batean zigortzen baitituzte txandaka lan egiten dutenak”

“Eta hori guztia urteko abonamendu bakarra sortuz instalazio guztietara sartzeko, tenis-, saskibalo- eta padel-pisten alokairua barne”

“Jarduera eta zein ordutan egin nire beharren arabera aukeratu nahiko nituzke. Adibidez, aukera izatea astelehenean spinning-a arratsaldeko 5:00etan eta body combat-a asteartean goizeko 10:00etan egiteko. Hau da, ordutegi erabilgarrien arabera ondoen datorkidan jarduerara sartzea ahalbidetzen didan kuota bat ordaintzea. Ez egotea behartuta joatera jarduera bakar batera astean dagozkidan egunetan eta suertatzen zaidan orduan”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak Instalazioak optimizatzea



Kirol-instalazioei dagokienez, garrantzizko zenbait alderdi jaso dira:

Ondizko probalekua eta Lamiakoko pilotalekua kirola egiteko espazio posible gisa azaldu dira.

Optimización de las instalaciones

Ildo horri jarraituz, aditzera eman da **gutxieneko egokitzapena eginda kirola egiteko baliagarri diren espazio guztiei ahalik eta probetxu handiena ateratzeko beharra.**

Halaber, **Sakonetako** instalazioen egoera ere izan da mintzagai eta horri buruz adierazi da egoera ez dela hoberena eta agian ez litzatekeela komenigarri ezta egingarri ere izango instalazioa leheneratzea. Alabaina, espezializazio tekniko txikiagoa eskatzen duten jarduerak egiteko aprobetxatzea bideragarri ikusten da: gimnasia-aretoak, Pilates egiteko espazioak, spinning-a... eta abar.

“Ez kentzea gimnasia Sakonetatik, aprobetxatzea adibidez adinekoentzako jarduerak egiteko”

“Idi Probalekua, Udalak ez du uzten Herri Kirola baino praktikatzen”

“Se podrían instalar tarimas móviles y utilizar el probadero”

“Barandíaraneko instalazioak erabili barik daude”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Kokapena

Eztabaida sortu da kirol-instalazioen kokapenaren harira: bildu ala sakabanatu behar diren. Guztiek dituzte baliozko argudioak.

Alde batetik, **kiroldegia erdigunetik ez aldentzeko** eskaera jaso da, **adinekoek** eta garraiobide propiorik ez duten pertsonak kirola egiteko instalazioak beren inguru hurbilean edukitzen jarrai dezaten.

Baina biztanle-nukleoen aldetik Leioak izandako hazkundearen ondorioz, udalerriaren gero eta eremu handiago bati eman behar zaio erantzuna udal-zerbitzuen alorrean eta horien artean kirolaren praktika ere badago.

“Instalazio guztiak ez dira espazio berean bilduta egon behar...” “Ezin dira instalazioak eraman auto barik heldu ezin den tokira”

“Herriaren zahartzea aurreikustea eta hemendik 30 urtera izango ditugun beharrak betetzea.”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Kokapena

Eta bestetik, argi ikusten da **kirol-instalazio berriek, udalerri osoari eman behar diotela erantzuna tamainan zein harrera egiteko gaitasunean**. Hori dela-eta, ulergarria da oraingoa baino handiagoa den kiroldegi bat ezin dela udalerriaren erdigunean eraiki.

“Argi dago lursaila ez dela gauza bera Sakonetan egin edo Ondizen egin...”

“Zaila da dimentsio horietako kiroldegi bat erdigunean eraikitzea ”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak


Kokapena

Azkenik, eztabaida sortu da kirol-instalazioak biltzearen ala sakabanatzearen komenigarritasunari buruz.

Alde batetik, argi ikusten da instalazio osoagoak eta modernoagoak espazio bakar batean bildu behar direla. Hala ere, udalerriaren egitura sakabanatuak beharrezko ikusarazten du instalazioen nolabaiteko atomizazioa, instalazioak hurbil edukita errazten baita kirol-praktika auzo guztietan.

Horren harira, **beharrezkotzat jotzen da udalerri osoan kirola egiteko egokiak izan daitezkeen espazioak leheneratu eta optimizatzea, baita auzo guztiak gutxieneko kirol-ekipamenduz hornitzea ere.**

“Kiroldegi handi bat egon behar da, baina auzoetan ere zer edo zer egon behar da. Nik atomizatuko nuke.”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Kokapena

Kokapena eztabaidagai izan da **kirol-eskaintzaren hobekuntza eta kirola publiko guztiengana gerturatzeko beharra** bateragarri bilakatzeko premiari dagokionez.

Adinekoek, zeintzuk gaur egun Sakonetara joaten diren hurbiltasunagatik, zailtasun handiak izango lituzkete erdigunetik urrunagoko kokapen batera kirola egitera joateko.


Arrazoi horregatik mahaigaineratu da **Leioako hainbat eremutan gutxieneko ekipamenduak** jartzeko beharra, modu horretan lekualdatzeko arazo handienak dituzten gizataldeak kirola egiteko aukera berberak edukiko baitituzte.

“Emakume bat ezagutzen dut zeina etxez aldatu zen gimnasiara jaitsi ahal izateko.”

“Kanpoan egiten bada asko pentsatu beharko litzateke nola erraztu sarbidea”

“Erdigunetik ezin da dena desagertu, gutxienez egon beharko lirateke igerileku txiki bat, erabilera anitzeko areto bat...”

“Lamiakoko kotxe-tokiak baliagarri lirateke hainbat gauza jartzeko: hirugarren adinekoentzako aretoak, kantxa bat eta gimnasio txiki bat”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak

Leioa azken urteotan asko handitu da biztanle-kopuruaren aldetik eta, antza, tamaina handiagoko instalazioak behar ditu **biztanleen kirol-eskaerari erantzuna emateko**.

Instalazio egokienez, besteak beste, honako alderdi hauek bete beharko lituzkete:


Erabiltzaile gehiago hartzeko moduko igerilekuak

Erabilera anitzeko gelak intentsitate gutxiko gimnasia egiteko.

Erakustaldiak eta gimnasia egiteko kantxa baliagarriak

50 eta 25 metroko luzeradun igerilekuak udan nahiz neguan

Talde-kiroletarako kantxak



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak

Lehenago aipatu den bezala, Leioa **erreferente da zenbait kirol-diziplinaren praktikan**, horregatik eskatzen da dauden beharrek bat datozen kirol-espazioak eraiki daitezela.

Lehenengo eta behin, ezaugarri tekniko jakinak bete behar dituzte zenbait lehiaketa-mailatako kirol-praktikak ezinbestean eskatzen dituen entrenamenduak bertan egin ahal izateko.

Bigarrenik, lehiaketa ofizialak egiteko beharrezko betekizunak eta espezifikazioak bete behar dituzte.



Egiten den kirol-mailaren arabera instalazioak behar ditugu

Gela handiak eta nahikoa materiala behar ditugu



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak

Irristaket
a



Irristaketak honako ezaugarriak dituzten instalazioak behar ditu :

1. **Zoladura egokia gurpil-arrastoetarako.**
2. **Lehiaketa ofizialak egiteko beharrezko neurriak dituen pista bat, gutxienez.**
3. **Lehiaketa ofizialeko instalazioekin bat datorren harmaila-eremu bat, tamainari nahiz ezaugarriei dagokienez.**
4. **Entrenamenduak egiteko espazio handiagoa, gaur egun dagoen itxaron-zerrenda hartzeko aukera emango duena.**
5. **Klubaren administrazio-zereginetarako leku bat.**

4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak



Gimnasia
Erritmikoa



Gimnasia erritmikoko arloak ondoko ezaugarridun instalazioak eskatzen ditu:

1. **Altuera nahikodunak, jaurtiketa-ariketak** egin ahal izateko.
2. **Neurri nahikodun tapizak (13X13)** lehiaketa ofizialetarako, ispiluz eta horma-barrez hornituak.
3. Lehiaketa ofizialeko instalazioekin **bat datorren harmaila-eremua, tamainari nahiz ezaugarriei dagokienez.**

“Txapelketa bat ekarriko da, Bilbon egin behar izango dena, hemen ez baitago instalaziorik”

4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak



Waterpolo-arloak honelako instalazioak eskatzen ditu:

Waterpolo



1. Lehiaketa ofizialak egiteko **behar adinako neurriak dituen** kazola bat gutxienez.
2. **Entrenamenduak egiteko espazio handiagoa**, beste ordu batzuetan entrenamenduak egiteko aukera izateko.
3. Lehiaketa ofizialeko instalazioekin **bat datorren harmaila-eremua, tamainari nahiz ezaugarriei dagokienez.**

“Ez izatea mugaketarik kategoria altuago batera igotzeko edo jarduerak, txapelketak nahiz ekitaldiak gauzatzeko instalazio-faltagatik”

4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak

Saskibaloia- eta irristaketa-klubek eskaerak eta instalazioak partekatzen dituzte:

1. **Zoladura egokia.**
2. **Instalazio gehiago entrenamenduetarako.**



Eskrima



Eskrima-arloaren eskaerak honakoak dira:

1. **Gela finko bat entrenatzeko.**

4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-instalazioak

Ezaugarri
teknikoak

Frontoiak frontis ona dauka baina oso zoru txarra.

Pilota



Hona hemen pilota-arloak eskatzen dituen instalazioen ezaugarriak:

1. Behar adina leku dituen pilotaleku bat.
2. **Zoruen egoera** egokitzea pilotan aritzeko.

Xake-jokoa



Xake-arloak ondokoak eskatzen ditu:

1. **Xakean aritzeko areto egoki bat.**
2. **Noiz edo noiz espazio bat edukitzea bertan txapelketak antolatu ahal izateko.**
3. **Disziplina hau sozializatzea.**

4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-eskaintza

Eskaintzen diren jarduerak ere mintzagai izan dira eta jasotako ekarpenak, egungo eskaera betetzeko moduko plaza-kopuruaz gain, **ondoko bi alderdiei buruzkoak izan dira:**

Aniztasuna eta modernotasuna:

Nolabaiteko modernizatzeko beharra nabarmendu da. Izan ere, eskatzen da pertsona gehiagoren interesa pizten duten moda eta joerekin bat datozen kirol-diziplinak, eta zehazki gimnasia-modalitateak, eskaini daitezela.

“Jarduera moderno gehiago eskainiz eta 14 urtetik gorako neska-mutilentzat”

“Kirol-ekipamenduen motak Sakonetan daudenak gehi orain modan dauden beste batzuk dira (crossfita, Fly yoga, Body Pumpa, eta abar.)”

“Udalerri barruan bestelako kirolei leku emanez, tenisari adibidez, tenis-eskola bat sortuz, beste udalerri batzuen moduan”

“Kirol-aukera zabalagoa eskainiz”

“Ikastaro-aukera handia eta berriak izan daitezela”

Ilido berean, behar zehatzak dituzten zenbait kolektibo jakinenei zuzendutako jarduera-eskaintza handitzeko premia ere aipatzen da, hala nola, haurdun dauden emakumeei zuzendutakoak edota helduentzako nahiz haurtxoentzako igeriketa.

“Haurdunei eta haurtxoei zuzendutako udaleko kirol-jarduerak (haurdunentzako yoga, haurdunentzako igerilekua, berariazko gimnasia, masajea eta zentzumenen estimulazioa haurtxoentzat, erditze osteko gimnasia ama eta haurtxoentzat...). Igeriketa haurtxoentzat”



4. ¿Cuál es el futuro modelo deportivo de Leioa?

Kirol-eskaintza

Azkenik, **kontziliazioa kirol-arloan** sartzeko aukera mahaigaineratu da.

Horren harira, neurri berritzaile bat iradoki da, bi alderdi izan litzakeena:

1. Gurasoen kirol-praktika eta seme-alaben kirol-praktika ordu berean izatea proposatu da: umeak eta gurasoak ordutegi berean sartuko dira instalazioetara, nor bere jardueretara.
2. Bigarren aukera gisa, “Txikipark” moduko zerbitzu bat eskaintzea azaldu da: neska-mutilak bertan egongo dira gurasoak edota tutoreak instalazioetan dauden bitartean.

“Txikipark bat Leroy Merlinden edo Ikean bezala”

“Kirola egitera joan ahal izateko, haurtzaindegi bat edo umeak uzteko leku bat egon liteke”

“Izan liteke umeak saskibaloian aritzen diren bitartean zuk besterik egiteko aukera edukitzea”





5. Azken gogoetak

5. Azken gogoetak

Leioan kirol-arloak bizi duen egoeraren alderdiak aztertutakoan, ondoko ondorioak atera dira:

1. **Leioa udalerri bizia eta aktiboa** da kirol-arloan eta horrelakoa izaten jarraitu behar du etorkizunean.
2. **Kirol-eskaera** gaur egun udal-instalazioetan proposatzen den eskaintza arautua baino askoz handiagoa da.
3. Leioztarrek **beste aukera batzuk** bilatzen dituzte kirol-parktikarako eta kalera ateratzen dira edo beste udalerri batzuetara “emigratu” egiten dute.
4. **Udalerriaren ezaugarriak lagungarriak dira outdoor motako kirola egiteko**, hau da, **aire zabalean** egiteko kirola.
5. **Kirol-eskaintza zaharkitu** samar geratu da eskaintza-ereduaren eta aniztasunaren aldetik.
6. **Instalazioak txikiegiak dira dagoen eskaerarako** eta zenbait kasutan gutxiegi erabiltzen dira, antza.

5. Azken gogoetak

Dirudienez, kirolaren etorkizunak honakoetara jotzen du...

KIROLA KALERA

KIROLA GUZTIONTZAT

KIROLA BIZITZAREN ALDERDI GISA .

ETA HORRETARAKO...

- 1. Instalazio osoak eta teknikaren aldetik egokiak** kirolari federatuen nahiz afizionatuen beharrak betetzeko.
- 2. Instalazio hurbilak** eta sarbide errazekoak guztiontzat. Baina lehenik eta behin **adinekoen** premiak ahaztu barik.
- 3. Modu globalean kudeatutako instalazioak eta kirol-eredua, udalerri osorako eredu koherentea lortu nahian.**

5. Azken gogoetak

4. Kirola Leioa sustatzeko bide gisa erabiltzea eta apustu egitea kalitateko kirol-lehiaketarekin eta -praktikarekin lotutako irudiaren alde udalerrirako.

***BAINA HORI GUZTIA ESKURATU ETA EGOERA
APROPOSA LORTZEN DEN BITARTEAN, KIROLAREN
ALDEKO APUSTU ARGIA EGITEA ETA EGIN, EGIN ETA
EGITEA, KIROLA UDALERRIAREN LOKARRIA ETA INDAR
ERAGILEA IZAN DADIN.***

ibotuz

ibatuz.com

